

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

ARLOA: GIZARTE KOHESIOA

Azpiarloa: Adineko Politika Aktiboak. Zerbitzu-Unitatea: Nagusiak

Laudioko Udaleko adinekoentzako jantoki-zerbitzua arautzen duen udal-ordenantza berria behin betiko onespena. (2026/1831)

Laudioko Udalak, 2026ko uztailaren 27ko osoko bilkuran, "Laudioko Udaleko adinekoentzako jantoki-zerbitzua arautzen duen udal-ordenantza berria" izenekoaren behin betiko onespena ematea erabaki zuen.

2026ko ekainaren 3an, ordenantzaren hasierako onespena argitaratu zen ALHAOn, 63. zenbakian, baita udalaren webgunean, iragarki-taulan eta hedabide sozialetan ere. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritako epea igarota, lege-testu horren 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, eta ordenantza horretan aldaketak gehitu ondoren, erabaki hori behin betikotzat joko da, eta testua osorik argitaratuko da. Halaber, 65.2 artikuluan adierazitako hamabost egun balioduneko epea igaro ondoren sartuko da indarrean.

Laudio, 2026ko uztailaren 29a

Alkate-udalburua

AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ

ADINEKOENTZAKO JANTOKI-ZERBITZUAREN ORDENANTZA**HITZAURREA**

Laudioko biztanleriaren zahartzea, zalantzarik gabe, herriaren egitura sozial eta demografikoa aldatzen ari den fenomeno da. Bizi-itxaropena luzatu ahala, adinekoen kopuruak ere gora egiten du. Horregatik ezinbestekoa da arreta- eta zaintza-premiei erantzuteaz gain, zahartze aktiboa eta osasungarria sustatuko duten politikak hartzea, norberak denbora luzeagoz modu autonomoan egin ahal izateko eguneroko bizitzako jarduerak, baita gizarte-proiektzioa dutenak ere. Pertsona horietako askok, agian, gaixotasunarekin edo mendeotasunarekin lotutako zailtasunak dituzte parez pare; baina oso aberasgarriak dira euren bizi-esperientziak, ezagutzak, trebetasunak, eta gizartean aktiboki parte hartzen jarraitzeko nahia.

Proposatzen diren gizarte-politikek errealitate hori ezagutu behar dute; inklusiboak izaten saiatu behar dute, eta, aldi berean, adinekoen aniztasuna kontuan hartu. Gainera, adinekoen parte-hartzea eta gizarte-bizitza sustatu behar dituzte, eta, aldi berean, bakardade-egoerak edo esku-hartze sozialaren beharra detektatu.

Behar horiek asetze aldera, Laudiokeko Udalak adinekoentzako jantoki-zerbitzua jarri du martxan, erabiltzaileen egoera sozioekonomikoaren arabera menu edo dieta orekatua eskaintzeko. Behar hori asetzeaz gain, zerbitzuak aukera emango du Laudiokeko adinekoen arteko sozializazioa sustatuko duten elkarguneak bultzatzeko, adinekoen ongizatea bermatuko duten elikadura-ohitura osasungarri eta orekatuak sustatzeko, eta adinekoen bizi-kalitatea hobetuko duten bizi-eredu aktibo eta osasungarriak bultzatzeko.

I. TITULUA: Adinekoentzako jantoki-zerbitzua.- Erregulazio orokorra**1. artikulua.- Ordenantzaren xedea**

1.-Ordenantza honen xedea da Laudiokeko Udalak adinekoentzat eskaintzen duen jantoki-zerbitzua arautzea. Horretarako, adinekoentzako jantoki-zerbitzutzat hartuko da Laudiokeko Udalak beren-beregi prestatutako jantokian otordu-zerbitzua ematea (eguerdiko bazkaria).

2.-Jantoki-zerbitzutik kanpo geratzen dira ordenantza honetan arautzen ez diren jarduerak (erabiltzailea bere etxetik jantokira eramatea, hari jaten ematen laguntzea, etab.).

2. artikulua.- Adinekoentzako jantoki-zerbitzuaren ezaugarri orokorrak

1.- Jantoki-zerbitzua Laudioko Udalak unean-unean hautatzen duen lekuan emango da, dituen aukeren arabera.

2.- Zerbitzuaren erabiltzaileei eskainiko zaien menua aldez aurretik ezarriko da, honako hauek kontuan hartuta: euren adina, osasun-egoera (gaixotasunak, hala nola hipertentsioa, diabetesa, etab.), alergiak, intolerantziak, preskribatutako dietak, behar kulturalak eta/edo erlijiosoak, eta alegatutako beste edozein zirkunstantzia.

3. artikulua.- Zerbitzua emateko egunak

Oro har, zerbitzua astelehenetik ostiralera emango da, urte osoan, kasu hauetan izan ezik:

- Jaiegunak
- Abuztua (hilabete osoa)

Hala ere, urte bakoitzeko uztaillean, alkate-udalburuak dekretu bidez zehaztuko du zein izango den zerbitzuaren egutegia irailetik uztaileira, biak barne. Dekretu hori izapidetzeko, ordenantza honen azken xedapenean adierazitakoari jarraituko zaio

4. artikulua.- Zerbitzu-modalitatea

.

Zerbitzuaren barruan sartzen da eguerdiko bazkaria ematea, eskatzaile bakoitzak nahi dituen asteko egunetan.

5. artikulua.- Zerbitzua emateko ordutegiak

Zerbitzua 13:30etik 15:00etara emango da.

Nolanahi ere, eta alkate-udalburuak berariazko ebazpena eman ezean, erabiltzaileak 13:30ean sartuko dira jantokian, guztiei aldi berean zerbitzua emateko.

II. TITULUA: Erabiltzaileak.- Eskubideak eta betebeharrak

6. artikulua.- Onuradunak

1.- Onuradun izateko, eskakizun hauek bete beharko dira:

- a) 60 urtetik gorakoa izatea.
- b) Laudioko Udalean erroldatuta egotea.
- c) Norbere kabuz edo zaintzaile baten laguntzarekin elikatzeko gaitasuna izatea. Zaintzailea bertan egon beharko da, erabiltzaileari laguntzeko. Eskakizun hau betetzeari buruzko zalantzarik edo desadostasunik badago, Udaleko gizarte-zerbitzuen txostenaren bidez ebatziko da.

2.-Aurreko apartatuan adierazitako onuradunek ez ezik, honako hauek ere jaso ahalko dute zerbitzua:

- a) Erabiltzailearen ezkontidea, edo egoera afektiboz harekin antzeko lotura daukana, ofizialki aitortua (izatezko bikotea).
- b) Onuradunaren bizikideak, bigarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna dutenak.
- c) Zuzenean erabiltzailearen mende dauden bizikidetza-unitateko kideak.

3.- Udaleko gizarte-zerbitzuek salbuespenez aztertu ahal izango dute erabiltzaileak eskatzen duen antzeko beste edozein egoera.

7. artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

1.- Jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Zerbitzua berdintasunez eta ordenantza honetan ezarritako eskakizun eta baldintzen arabera jaso ahal izatea.
- b) Prestazioari eta eskakizunei buruzko informazio nahikoa eta egiazkoa jasotzea.
- c) Zerbitzuari eragiten dion edozein esku-hartzeri buruzko informazio nahikoa jasotzea aldez aurretik, berariazko baimena askatasunez eman ahal izateko.
- d) Udal-zerbitzuek ezagutzen duten informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea.
- e) Kalitatezko zerbitzua jasotzeko eskubidea.
- f) Prestazioei eta emandako zerbitzuari uko egiteko eskubidea.

2.- Jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Zerbitzua ematen aritzen diren profesionalei erraztasunak ematea, laguntzea eta errespetuz tratatzea, gainerako jankideen edo zentrori eta instalazioetara joaten diren beste pertsona batzuen kasuan ere bai.
- b) Udalaren instalazio eta ekipamendu guztiak modu egokian eta helburuaren arabera erabiltzea.
- c) Norberaren egoera ekonomikoa baloratzeko behar diren agiriak aurkeztea, udal-zerbitzu eskudunei datu horiek kontsultatzeko berariazko baimena eman ezean.
- d) Udal-teknikariei behar besteko aurrerapenaz jakinaraztea gerora sortutako zirkunstantzia pertsonalak, egoera sozioekonomikoan izandako aldaketak barne, baldin eta inguruabar horiek zerbitzua emateko baldintzei eragiten badiete.
- e) Dagokion prezio publikoa ordaintzea, udal-araudiaren arabera. Horretarako, eta beharrezkoa den kasuetan, erabiltzaileak bankuko datuak emango dizkie udal-teknikariei, ordainketak helbideratu ahal izateko.
- f) Gutxienez astebete lehenago jakinarazi beharko du jantokian baja eman nahi duela, joango ez dela edo beste edozein aldaketa egin nahi duela, arrazoiak adierazita. Bestela, dagokion zerbitzua kobratuko da, salbuespenezko egoeretan izan ezik, besteak beste: ospitaleratzeak, familia-larrialdiak, gaixotasunak edo beste edozein zirkunstantzia. Udaleko gizarte-zerbitzuek egoera horiek baloratu beharko dituzte, eta, ondoren, ebazpen bereizia eman. Salbuespenezko kasu horietan, betiere posible bada, gutxienez 24 ordu lehenago abisatuko da.

3.- Betebehar horietakoren bat betetzen ez bada, administrazio-espedientea irekiko da, eta espediente horren bidez, hala badagokio, zerbitzua etetea edo azkentzea ebatz daiteke. Nolanahi ere, izapide horretan interesdunari entzunaldia emango zaio, ebazpena eman aurretik.

III. TITULUA: Zerbitzua jasotzeko prozedura

8. artikulua.- Zerbitzua jasotzeko eskaera.- Eskaeran atzera egitea

1.- Adinekoentzako jantoki-zerbitzuaren erabiltzaileen zerrendara sartu aurretik –zerbitzu hori ordenantza honetan arautzen da–, interesdunak eskaera egin beharko dio organo eskudunari, eskatzaileak sinatutako inprimaki normalizatuaren bidez. Eskabidea Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztuko da.

2.- Prozeduraren edozein unetan, interesdunak atzera egin dezake bere eskaeran. Kasu horretan, atzera egite hori Udaleko sarrera-erregistroan aurkeztuko da, eskatzaileak sinatutako dokumentu baten bidez; ondorioz, prozedura amaitutzat jotzen duen administrazio-ebazpena emango da.

9. artikulua.- Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

1.- Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- a) NAN/IFZ eta familia-liburua.
- b) Agirirako moduko argazkia.
- c) Errenta-aitorpena edo urteko diru-sarrerak egiaztatzen dituen dokumentazioa.
- d) Ezkontzatik edo antzeko bizikidetzaren harreman afektiboetatik erabiltzaile osagarrien kasuan, harreman hori egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira (familia-liburua, ezkontza-ziurtagiria, izateko bikoteen erregistroko inskripzioa, etab.).
- e) Erabiltzaile nagusien mendeko pertsonen kasuan, eta pertsona horiek ez badute mantenu egokia ziurtatzeko baliabide ekonomiko nahikorik, benetako bizikidetzaren egiaztatu beharko da, baita eskatzailearen baliabide ekonomikoak ere.

2.- Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea edo akastuna bada, eta Administrazioak ez badu dokumentazio hori eskuratzeko bitartekorik, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun baliouduneko epean beharrezko dokumentazioa aurkezteko edo atzemandako akatsak zuzentzeko, eta, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela jakinaraziko zaio.

3.- Datuak faltsutzen edo ezkututzen badira, galdu egingo da zerbitzuaren eskatzailearen izaera. Horretarako, aldez aurretik administrazio-espeditentea ebatzi egingo da, zeinetan interesdunari entzunaldia emango zaion. Ebazpen horrek ez ditu eragotziko izan litezkeen erantzukizunak.

10. artikulua.- Zerbitzua jasotzeko eskaeraren espeditentea izapidetzeko eskumena.- Balorazio-irizpideak

1.- Alkate-udalburuari dagozkion ebazpen-ahalmenak eragotzi gabe, gaiaren arabera eskumena duen udal-arloan egingo dira eskaeraren tramitazioa, balorazioa eta ebazpen-proposamena.

2.- Aurkeztutako eskabideak lehentasun-ordenaren arabera baloratuko dira, irizpide hauen arabera:

a.- Bakardadea: bakarrik bizitzea da plazak esleitzeko irizpide nagusia. Baldintza hau udal-errolatik bidalitako informazioaren arabera zehaztuko da. Nolanahi ere, gizarte-zerbitzuek txostena aurkeztu beharko dute, egiaztagiri gisa.

b.- Familia unitatearen errenta eta/edo diru-sarreraren maila: Bakarrik bizi direnei plazak esleitu ondoren, gainerako eskaeren lehentasuna ezarriko da, familia-unitatearen errenta-maila eta/edo diru-sarrerak kontuan hartuta, eskuragarri dagoen zerga-informazioaren arabera:

Erabilgarri dauden plaza guztiak esleitu ondoren, itxarote-zerrenda bat sortuko da eskatzaileekin, betiere, aurrez ezarritako irizpideen arabera. Itxarote-zerrenda une oro eguneratuta egon beharko da, eskatzaileen egoera pertsonalaren eta/edo ekonomikoari lotuta, eta plazarik libre geratzen bada, horren arabera esleitu da plaza hori.

Aurrekoa gorabehera, Udaleko gizarte-zerbitzuek, txosten arrazoitu baten bidez, erabiltzaileak salbuetsi ahal izango dituzte lehentasun-ordena horretatik, bai plazak esleitzeko, bai erreserba-zerrendetako lehentasun-ordena ezartzeko. Txosten hori honako

kasu hauetan egingo da: malnutrizio-arriskua dagoenean, familia-sare sozialik ez dagoenean, erabiltzaileen adinaren arabera edo erabiltzaileak mendekotasunik badu.

11. artikulua.- Zerbitzua jasotzeko eskaeraren ebazpena

1.- Ordenantza honetan ezarritako eskakizunen arabera eta aurreko artikuluan adierazitakoaren arabera eskaera aztertu eta baloratu ondoren, alkate-udalburuari proposamena egingo zaio, ebazpen arrazoitua eman dezan, eskatutako zerbitzua jasotzeko eskaera baiesteko edo ezesteko.

2.- Ebazpena aldekoa bada, interesduna eta, hala badagokio, bizikideak zerbitzuaren balizko erabiltzaileen zerrendan sartuko dira.

3.- Zerbitzua erabiltzeko eskaera egin dutenen artean, modu korrelatiboan jarraituko da zerrenda, unean-unean libre dauden lekuen arabera. Nolanahi ere, esleitu beharreko plazen itxarote-zerrendaren hurrenkera edozein unetan aldatu ahalko da, eskatzaileen egoera pertsonalaren eta/edo ekonomikoaren arabera zerrenda hori eguneratu egin beharko baita.

4.- Eskabidea sarrera-erregistroan sartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean eman beharko da ebazpena. Nolanahi ere, epe hori eten egingo da eskabidea zuzentzeko eskatzen bada, jakinarazpena egiten denetik eskatutakoa zuzentzen den arte, edo, bestela, emandako epea amaitzen den arte.

5.- Aurreko apartatuan ezarritako epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, ebazteko betebeharrak bere horretan jarraitzen badu ere, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da, interesdunak aukerako berraztertze-errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izateko.

6.- Eskaera baiesteko ebazpenak alderdi hauek jaso beharko ditu:

- a) Eskaera jantokiko erabiltzaileen zerrendan sartzea.
- b) Zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua, bai eta onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

7.- Eskaera ezesteko ebazpenak arrazoitua izan behar du, eta ezesteko arrazoiak argi eta garbi azalduko dira.

IV. TITULUA: Zerbitzuaren kostua**12. artikulua.- Zerbitzuaren kostua**

Zerbitzuaren kostu erreala alde batera utzi gabe, erabiltzaileek Adinduen Jantokiko Udal Zerbitzua emateko prezio publikoak arautzen dituen Udal Ordenantzan ezartzen den prezio publikoa ordaindu ondoren eskuratu ahal izango dute zerbitzua.

Ordaindu beharreko zenbatekoa hilerik likidatuko da, aldi horretan benetan egindako otorduen kopuruaren arabera eta erabiltzaileari esleitutako ekarpen ekonomikoarekin bat eginez.

V. TITULUA: Zerbitzua etetea eta azkentzea**13. artikulua.- Zerbitzua etetearen ondorio ekonomikoak**

Arrazoi edozein dela ere, zerbitzua aldi baterako eteten bada, erabiltzaileak ez du inolako preziorik ordainduko prestazio horrengatik.

14. artikulua.- Zerbitzua azkentzea

1.- Interesdunari ematen zaion jantokiko zerbitzua arrazoi hauengatik azkenduko da:

- a) Zerbitzua jasotzeko emakidan ezarritako epea amaitzea.
- b) Erabiltzaileak uko egitea.
- c) Erabiltzailearen heriotza.
- d) Jantoki-zerbitzua daukan beste baliabide edo programa batean sartzea erabiltzea.
- e) Zerbitzua ematea eragin zuen premia-arrazoiak desagertzea.
- f) Zerbitzua emateko kontuan hartu diren datuak ezkutatzea edo faltsutzea.
- g) Zerbitzua erabiltzeko eskakizunaren bat betetzeari uztea.
- h) Zerbitzuaren jarraipena egiteko eska litekeen dokumentazioa ez aurkeztea.
- i) Erabiltzaileak zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.

j) Zerbitzuaren bi ordainagiriren ordainketa justifikaziorik gabe atzeratzea.

k) Erabiltzaileek ez betetzea, behin eta berriz, araudi honetan ezarritako betebeharrak (ordainagiriak epez kanpo ordaintzea...).

l) Arrisku fisiko eta/edo psikikoak egotea, bai erabiltzailearentzat, bai zerbitzua ematen duten langileentzat. Gizarte Kohesioko zerbitzu teknikoek balorazioa egingo dute alde zurretik.

2.- Kasu horiek guztiak kontraesaneko espediente baten bidez izapidetu beharko dira, non argi eta garbi adierazi beharko den azkentzeko arrazoia egon badagoela, bai eta zerbitzua azkentzeko berariazko ebazpena ere.

3.- Zerbitzua jasotzeko eskubidea azkendu ondoren, erabiltzaileak berriz ere zerbitzua jasotzeko borondatea agertzen badu, beste eskabide bat aurkeztu beharko du; ondorioz, beste prozedura bat hasiko da. Kasu horietan, erabiltzaileak ez badu osorik ordaindu jada eman zaion zerbitzua, alde zurretik azkendutakoa, zerbitzu berria jasotzen hasi aurretik ordaindu egin beharko du.

AZKEN XEDAPENA.

Salbuespenezko eta premiazko egoeretan izan ezik –kasuan kasuko ebazpenean arrazoitu beharko dira–, ordenantza honen erregulazioan jasotzen ez diren alderdiak, edo ordenantza interpretatzea eskatzen dutenak, alkate-udalburuaren ebazpen bidez ebatziko dira, honako espediente hau izapidetu ondoren:

a.- Gaiaren arabera eskumena duen arloaren txosten teknikoa, zeinetan azalduko baita, batetik, zein izan den sortutako arazoa, eta, bestetik, proposatutako ebazpen arrazoitua.

b.- Sailaren txostena udal-talde politiko guztiei bidaltzea, eta gutxienez bost egun balioduneko epea ematea ekarpenak egiteko. Gaiaren arabera eskumena duten zerbitzu teknikoek aztertu beharko dituzte ekarpenak.

c.- Alkate-udalburuaren ebazpena.

d.- Arloko informazio-batzordearen gai-zerrendan gaia sartzea, horren berri emateko.

e.- Alkate-udalburuaren ebazpena argitaratzea herriko gizarte-hedabideetan, baita zerbitzua ematen den instalazioetan ere.